EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza*
*Estatistika Organo Espezifikoa*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
*Dirección de Servicios*
*Órgano Estadístico Específico*

# El Sector Fundacional y el Asociacionismo de Utilidad Pública en la C.A. de Euskadi

# Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazio Sektorea eta Onura Publikoko Elkartegintza

# DEFINICIONES / DEFINIZIOAK

| | |
|---|---|
| Activo | Aktibo |
| Área de actividad | Jarduera-eremua |
| Asociación de utilidad pública | Herri-onurako elkartea |
| Fundación | Fundazioa |
| Fundaciones inactivas | Fundazio ez-aktiboak |
| Fundaciones tratadas válidas | Baliozko tratamendua jaso duten fundazioak |
| Gastos | Gastuak |
| Ingresos | Diru-sarrerak |
| Patrimonio Neto | Ondare garbia |
| Personas en Patronatos | Patronatuetako pertsonak |
| Personas Remuneradas | Soldatapeko pertsonak |
| Personas Voluntarias | Boluntarioak |
| VAB (Valor Añadido Bruto) | BEG (Balio Erantsi Gordina) |

## ACTIVO

Bienes, derechos y otros recursos controlados económicamente por la entidad como resultado de sucesos pasados, de los que se espera que la entidad obtenga rendimientos aprovechables en su actividad futura.

## ÁREA DE ACTIVIDAD

El Decreto 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco[1], dictado en desarrollo de la Ley de Fundaciones del año 2016 se recogen 20 actividades para clasificar la finalidad y actividad de las fundaciones. El área de actividad agrupa estas actividades de la siguiente forma:

### Servicios Sociales y Salud

1. Salud

9. Servicios sociales. Promoción de la acción social

13. Protección de la vivienda

19. Fomento de la igualdad de oportunidades

### Educación

2. Educación

### Cultura y Euskera

3. Cultura

4. Promoción del euskera. Diversidad lingüística y cultural vasca

### Deporte

5. Promoción del deporte

### Desarrollo socioeconómico y comunitario

6. Defensa de los derechos humanos y de los principios éticos y democráticos

7. Cooperación y Educación para el desarrollo. Ayuda humanitaria

8. Promoción del voluntariado y defensa de la tolerancia

---

[1] DECRETO 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco.
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/08/1903680a.pdf

10. Desarrollo comunitario

15. Fomento de la economía social y/o del emprendizaje empresarial

16. Desarrollo del sector primario, industrial y de servicios

**Ciencia y tecnología**

17. Desarrollo de la sociedad de la información

18. Investigación científica y desarrollo tecnológico

**Otros**

11. Defensa del medio ambiente y del patrimonio

12. Defensa y protección de los animales

14.Seguridad

20. Otras

Las Asociaciones de utilidad pública se agrupan de acuerdo con su finalidad en las siguientes áreas de actividad:

**Afectados por enfermedades o discapacidades:**
Asociaciones formadas por las personas que se agrupan en torno a los problemas derivados de una patología o enfermedad que les afecta y que tiene por objeto mejorar su calidad de vida y fomentar la participación.

**Benéfico-asistenciales y laborales:**
Asociaciones que tienen por objeto la atención de servicios sociales, dirigidos a favorecer la integración social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas, familias y grupos, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional, organizaciones no gubernamentales de desarrollo (ONGD) y otras entidades que realicen.

**Casas regionales:**
Asociaciones que agrupan a emigrantes del mismo lugar de origen que residen en otra comunidad o en el extranjero y que tienen por objeto la promoción de la cultura, el patrimonio y el ocio y la asistencia e integración social.

**Culturales, juveniles y deportivas:**
Asociaciones que tienen por objeto fomentar la cultura, el arte y la educación en su comunidad, así como aquellas cuya finalidad es la promoción, formación, integración social y entretenimiento de la juventud, y cualesquiera otras asociaciones que no deban inscribirse en el registro de entidades deportivas del País Vasco.

**Otras:**
Esta categoría agrupa a asociaciones con una amplia variedad de actividades y fines que no se categorizan en ninguna de las anteriores tipologías

## ASOCIACIÓN DE UTILIDAD PÚBLICA

Asociaciones de fines generales declaradas de utilidad pública: son las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco que sean reconocidas como tales por decreto del Gobierno Vasco, en atención al cumplimiento de los requisitos previstos en la presente ley[2].

Podrán ser reconocidas de utilidad pública las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco que contribuyan, mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo y cumplan, además, los siguientes requisitos:

a) Que se trate de entidades que promuevan el interés general o el bien común mediante la efectiva y continuada realización de fines de carácter cívico, educativo, científico, cultural, deportivo, sanitario, de promoción de los derechos humanos, de intervención social, de cooperación al desarrollo, de promoción de la igualdad entre mujeres y hombres, de protección de la infancia, de fomento de la igualdad de oportunidades y de la tolerancia, de defensa del medio ambiente, de fomento de la economía social o de la investigación, de promoción del voluntariado, de defensa de consumidores y usuarios, de promoción y atención de las personas inmigrantes y de quienes se encuentren en riesgo

[2] Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi. Art. 5
https://www.euskadi.eus/web01-a2aderre/es/contenidos/ley/bopv200703902/es_def/index.shtml

de exclusión por razones físicas, sociales, económicas o culturales, y cualesquiera otros fines de similar naturaleza.

b) Que su actividad no se dirija de manera principal y habitual a beneficiar a sus asociados y asociadas, sino a terceras personas ajenas a la asociación.

c) Que dispongan de los medios personales y materiales suficientes y de una organización adecuada para garantizar el cumplimiento de los fines estatutarios.

d) Que el número de personas asociadas contratadas mediante relación laboral o de servicios por la propia asociación sea escasamente relevante en relación con el conjunto de asociados y asociadas.

e) Que acrediten un cumplimiento efectivo y habitual de los fines estatutarios al menos durante los tres años anteriores a la presentación de la solicitud.

f) Que los miembros del órgano de gobierno desempeñen sus cargos gratuitamente y sin percibir retribución alguna. No obstante, podrán recibir una retribución adecuada por la realización de servicios diferentes a las funciones que les corresponden como miembros de dicho órgano.

g) Que lleven a cabo una ordenada y transparente gestión económica.

h) Que las actividades efectivamente realizadas sean adecuadas a los fines de interés general perseguidos[3].

## FUNDACIÓN

Las fundaciones son organizaciones constituidas sin fin de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general. Las fundaciones se rigen por la voluntad de las personas fundadoras, sus estatutos y, en todo caso, por la ley.[4]

## FUNDACIONES INACTIVAS

[3] Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi. Art. 42
https://www.euskadi.eus/web01-a2aderre/es/contenidos/ley/bopv200703902/es_def/index.shtml

[4] Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. Art. 2
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2016/06/1602528a.pdf

Finalizado el plazo de dos años, previsto por la Disposición Transitoria de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, para la adaptación estatutaria, de acuerdo con la Disposición Adicional del Decreto 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, el Registro Fundaciones practicará nota marginal expresiva de la presunción de inactividad para aquellas fundaciones que no habiendo procedido a la adaptación estatutaria, tampoco hayan realizado ninguna otra solicitud o comunicación al Registro desde la entrada en vigor de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

## FUNDACIONES TRATADAS VÁLIDAS

Fundaciones tratadas válidas son aquellas que han presentado las cuentas del año de referencia en un formato de balance y cuenta de resultados que permite su almacenamiento y tratamiento estadístico.

## GASTOS

Suma de los siguientes apartados de la cuenta de resultados: gasto por ayudas, aprovisionamientos y variación de existencias, otros gastos de explotación, amortización, gastos financieros y gastos de personal.

## INGRESOS

Suma de los siguientes apartados de la cuenta de resultados: ingresos de la actividad propia, ventas y otros ingresos de la actividad mercantil, otros ingresos de la actividad, subvenciones, donaciones y legados de capital traspasados al excedente del ejercicio e ingresos financieros.

## PATRIMONIO NETO

La parte residual de los activos una vez deducidos todos sus pasivos. Incluye:

- Las aportaciones realizadas en concepto de dotación fundacional en el momento de su constitución o en otros posteriores que no tengan la consideración de pasivos
- Las donaciones y legados no reintegrables que estén pendientes de imputar a resultados
- Los bienes y derechos que se afecten por el patronato con carácter permanente
- Los excedentes acumulados

- Las subvenciones

**PERSONAS EN PATRONATOS**

Personas físicas que son miembros del órgano de gobierno y representación de las fundaciones a título personal o en representación de personas jurídicas.

**PERSONAS REMUNERADAS**

Conjunto de personas trabajadoras asalariadas contratadas por la fundación, tanto fijas como temporales y con cualquier tipo de jornada (a tiempo parcial o a tiempo completo).

**PERSONAS VOLUNTARIAS**

Personas físicas que durante el periodo de referencia han desarrollado finalidades de interés general dentro de las actividades de la fundación de modo altruista y solidario sin contraprestación económica y sin relación laboral o mercantil alguna durante el ejercicio de referencia.

**VAB (VALOR AÑADIDO BRUTO)**

Es la macromagnitud que mide el valor añadido generado. Concretamente es la diferencia entre la producción valorada y los consumos intermedios.

**AKTIBO**

Iraganeko gertaeren ondorioz erakundeak ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasunak, eskubideak eta beste baliabide batzuk, baldin eta erakundeak etorkizuneko jardueran etekin onuragarriak lortzea espero bada.

**JARDUERA-EREMUA**

Uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren

Erregelamendua onartzen duenak[5], Fundazioei buruzko 2016ko Legea garatzeko eman zenak, 20 jarduera jasotzen ditu fundazioen xedea eta jarduera sailkatzeko. Jarduera-arloak honela biltzen ditu jarduera horiek:

**Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna**

1. Osasuna

9. Gizarte-zerbitzuak. Gizarte-ekintzaren sustapena.

13. Etxebizitza babestea

19. Aukera-berdintasunaren sustapena

**Hezkuntza**

2. Hezkuntza

**Kultura eta Euskara**

3. Kultura

4. Euskararen sustapena. Hizkuntza-aniztasuna eta euskal cultura

**Kirola**

5. Kirolaren sustapena

**Garapen sozioekonomikoa eta komunitarioa**

6. Giza-eskubideen eta printzipio etiko eta demokratikoen defentsa

7. Garapenerako lankidetza eta heziketa. Laguntza humanitarioa

8. Boluntariotzaren sustapena eta tolerantziaren defentsa

10. Komunitate-garapena

15. Gizarte-ekonomiaren eta/edo enpresa-ekintzailetzaren sustapena

16. Lehen sektorearen eta industria- eta zerbitzu-sektorearen garapena

[5] 115/2019 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/08/1903680e.pdf

**Zientzia eta teknologia**

17. Informazio-gizartearen garapena

18. Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa

**Bestelakoak**

11.Ingurumenaren eta ondarearen defentsa

12. Animalien defentsa eta babesa

14. Segurtasuna

20. Bestelakoak

Onura publikoko elkarteak, duten helburuaren arabera, jarduera-eremu hauetan biltzen dira:

**Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak:**
Pertsonek osatutako elkarteak dira, eta eragiten dien patologia edo gaixotasun baten ondoriozko arazoen inguruan biltzen dira. Helburua bizi-kalitatea hobetzea eta parte-hartzea sustatzea da.

**Ongintza-sorospen eta lan arloa:**
Gizarte-zerbitzuei arreta ematea xede duten elkarteak, pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztera bideratuak, prestazio eta zerbitzuen bitartez, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE) eta egiten dituzten beste erakunde batzuk.

**Eskualde-etxeak:**
Beste erkidego batean edo atzerrian bizi diren jatorri bereko etorkinak biltzen dituzten elkarteak, kultura, ondarea eta aisia sustatzea eta gizarte-laguntza eta -integrazioa helburu dutenak.

**Kultura, gazteria eta kirola:**
Beren komunitatean kultura, artea eta hezkuntza sustatzea helburu duten elkarteak, bai eta gazteen sustapena, prestakuntza, gizarteratzea eta entretenimendua helburu dutenak ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-erakundeen erregistroan inskribatu behar ez duten beste edozein elkarte.

**Beste batzuk:**
Aurreko tipologietan sartzen ez diren jarduera eta helburu ugari dituzten elkarteak biltzen ditu kategoria honek.

## HERRI-ONURAKO ELKARTEA

Onura publikokotzat deklaratutako xede orokorreko elkarteak: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak dira, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez halakotzat aitortzen badira, lege honetan aurreikusitako betekizunak betez[6].

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun , altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte. Horretaz gainera, honako betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Interes orokorra edo guztien ongia sustatu behar dute, eta, horretarako, benetan eta jarraituki bete behar dituzte zenbait xede, hala nola izaera zibikoko eta hezkuntza-, zientzia-, kultura-, kirol- edo osasun-izaerako xedeak edo beste hauek eta antzekoak: giza eskubideak sustatzea, gizartean esku hartzea, garapenerako lankidetza, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, haurrak babestea, aukera-berdintasuna eta tolerantzia bultzatzea, ingurumena defendatzea, gizarte-ekonomia edo ikerketa bultzatzea, boluntariotza sustatzea, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzea, eta etorkinak eta arrazoi fisiko, sozial, ekonomiko edo kulturalak direla-eta baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak promozionatzea eta artatzea.

b) Beren jardunean, ez dute batez ere eta eskuarki bakoitzak bere kideen onura bilatu behar, elkartekoak ez diren beste batzuena baizik.

c) Bitarteko pertsonal eta material nahikoa eta antolamendu egokia izan behar dituzte, estatutuetan ezartzen diren xedeak beteko direla bermatzeko.

d) Haietako bakoitzak lan- edo zerbitzu-harreman baten bitartez kontratatuta dituen elkartekideen kopuruak ez du handia izan behar elkartekideen kopuru osoa kontuan hartuta.

---

[6] 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa. 5. art. https://www.euskadi.eus/web01-a2aderre/eu/contenidos/ley/bopv200703902/eu_def/index.shtml

e) Frogatu behar dute estatutuetako xedeak benetan eta eskuarki bete dituztela, inskribatzeko eskaera egin aurreko hiru urteetan gutxienez.

f) Haien gobernu-organoetako kideek doan bete behar dute kargua, inolako ordainsaririk jaso gabe. Dena den, ordainsari egokia jaso ahal izango dute gobernu organoko kide izate hutsagatik dagozkien eginkizunez bestelako zerbitzuak egiteagatik.

g) Ekonomia-kudeaketa txukuna eta gardena egin behar dute.

h) Benetan egiten dituzten jarduerek egokiak izan behar dute bilatzen diren interes orokorreko xedeetarako[7].

## FUNDAZIOA

Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi izan dutelako beren ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean. Fundazioek fundatzaileen borondatea, beren estatutuak eta, edonola ere, legea izango dituzte arau.[8]

## FUNDAZIO EZ-AKTIBOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen Xedapen Iragankorrean aurreikusitako bi urteko epea amaituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz, Fundazioen Erregistroak orri-bazterreko idazpen batean jarduera ezaren presuntzioa jasoko du, estatutuak egokitu gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea indarrean sartu zenetik erregistroari beste eskaerarik edo jakinarazpenik egin ez dizkioten fundazioentzako.

## BALIOZKO TRATAMENDUA JASO DUTEN FUNDAZIOAK

Baliozko tratatutako fundazioak erreferentziako urteko kontuak balantze-formatuan eta emaitza-kontuan aurkeztu dituztenak dira, eta horrek aukera ematen du horiek biltegiratzeko eta estatistikoki tratatzeko.

---

[7] 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa. 42. art.
https://www.euskadi.eus/web01-a2aderre/eu/contenidos/ley/bopv200703902/eu_def/index.shtml

[8] 9/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. 2. art.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2016/06/1602528e.pdf

**GASTUAK**

Emaitza-kontuaren atal hauen batura: laguntzengatiko gastua, hornikuntzak eta izakinen aldaketa, ustiapeneko beste gastu batzuk, amortizazioa, finantza-gastuak eta langile-gastuak.

**DIRU-SARRERAK**

Emaitza-kontuaren atal hauen batura: jarduera propioaren sarrerak, merkataritza-jardueraren salmentak eta bestelako sarrerak, jardueraren beste diru-sarrera batzuk, dirulaguntzak, kapital-dohaintzak eta kapital-legatuak ekitaldiko soberakinera transferituta eta diru-sarrera finantzarioak.

**ONDARE GARBIA**

Geratzen den aktiboen zatia, pasibo guztiak kendu ondoren. Honako hauek hartzen ditu:

- Eratze-unean edo pasibotzat hartzen ez diren ondorengo beste batzuetan fundazio-zuzkidura gisa egindako ekarpenak.
- Itzuli behar ez diren dohaintzak eta legatuak, emaitzei egotzi gabe daudenak.
- Patronatuak modu iraunkorrean lotzen dituen ondasunak eta eskubideak.
- Metatutako soberakinak.
- Dirulaguntzak

**PATRONATUETAKO PERTSONAK**

Fundazioen gobernu- eta ordezkaritza-organoko kide diren pertsona fisikoak, modu pertsonalean edo pertsona juridikoen ordezkari gisa.

**SOLDATAPEKO PERTSONAK**

Fundazioak kontratatutako soldatapeko langile guztiak, finkoak zein aldi baterakoak, eta edozein lanaldi-motatakoak (lanaldi partzialekoak edo lanaldi osokoak).

**BOLUNTARIOAK**

Erreferentziako ekitaldian zehar interes orokorreko helburuak fundazioaren jardueren barruan modu altruistan eta

solidarioan gauzatu dituzten pertsona fisikoak, kontraprestazio ekonomikorik gabe eta inolako lan- edo merkataritza-harremanik gabe.

**BEG (BALIO ERANTSI GORDINA)**

Sortutako balio erantsia neurtzen duen makromagnitudea da. Zehazki, baloratutako ekoizpenaren eta bitarteko kontsumoen arteko aldea da.